

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko abuztuaren 24a

Egunkaria

Gehigarri honetan



**Erronkari** • Igandean Fructuoso Orduna eskultorea omenduko du bailarak  
**Jose Mari Uztarroz** • «Gurea denaren kalitatea eta jatorria zaindu behar dugu»


## Dilindan margotu

Zintzilik egoten ikasi duten pintoreak dira Rafa eta Carlos. Egunotan Iruñeko Irintzi dorreko barneko patioa margotzen egon dira, aldamia erabili gabe, soka batetik zintzilik eta penduluaren gisara. Geroz eta gehiago egiten dira horrelako lanak gurean. Izan ere, normalean, aldamioekin egiten diren lanak eta sokekin eginikoak kalitate berekoak dira, eta, prezioz, Rafak eta Carlosek egiten dituztenak anitzez merkeagoak dira. Beldurra ematen du bi horiei lanean ikusteak; beldurra, harridura eta mirespena.

# Aralar • Santutegiko eliza bere hartan

Igandean Asolbizio Eguna ospatuko dute, eliza sagaratu zeneko urtemuga

**Aralarko santutegian berrikuntza lanak egin behar direla eta, halako nahasmena sortu da elizaren ixtearen inguruan. Aralarko San Migel Goiaingeruaren Kofradiak berriki argitu duenez, elizak betiko moduan funtzionatzen du.**



Aralarko santutegian berrikuntza lanak egin behar dituzte, baina eliza beti bezala egonen da zabalik.

EGUNKARIA

Zaintzuk izanen diren zehazturik ez dagoen arren, Aralarko santutegian berrikuntza lanak eginen dituzte laster. Horregatik, lo egiteko tokia itxi egin dute. Baina elizak bere ohiko martxan segitzen du; taberna egunero zabaltzen dute, eta jantokia, asteburuetan.

Inozentzio Aierbe apaiza urteetan arduratu da santutegiko gorabeherez. «Orain esaten dutenez, gure ostalua ez dago modu onean, eta aldatu egin behar da», azaldu du. «Apezpiku jaunak esan dit obrak egin behar direla hemen, eta nik hau utzi egin beharko dudala, oraingoz behintzat. Gero nik nahi dudana egingo dudala, baina oraingoz utzi egin beharko dudala».

Inozentzio Aierbek ez du oraino erabaki zer eginen ote duen berak: «Gauzak nola diren ikusi eta orduan erabakiko dut, edo hemen gelditu edo arrebaren etxera joan bizitzera. Niri apezpiku jaunak esan dit nik nahi baldin badut hemen jarraitzeko, eta nahi

baldin badut beste toki batera joateko».

Aierbek ez daki ziur zerenolako lanak eginen dituzte. «Nafarroako Gobernuak zer eskatzen duen, hori izango da. Horregatik, ez dakigu oraindik seguru-seguru zer egin behar duten. Zerbait egin behar dela bai, baina zehazki zer egin behar den, ez. Baina elizako gauzak, horiek ez dira aldatuko batere, elizak jarraituko du orain arte bezala, beti zabalik».

Lanegunetan egunero ematen du meza Aierbek, arratsaldeko zortzietan. Igande eta jaiegunetan, berriz, hiru meza: 10:00etan, 12:00etan eta 13:30ean. «Orain, gauzak aldatzen direnean, ez dakit posible izango den hainbeste meza ematea», erran du. «Egunero, behintzat, ez da emango. Eta igandeetan, meza nagusia bai, baina beste biak franko nekez izango da».

## Asolbizio Eguna

Oraingoz bederen, gauzek bere hartan segitzen dute.

Horregatik, urtero bezala, heldu den igandean, abuztuko azkena izateagatik, Asolbizio Eguna ospatuko dute santutegian. «Jai hau da eliza sagaratu zeneko urtemuga», esplikatu du Aierbek. «Urtero ospatzen da. Ez dakit zenbatgarrena den aurtengoa. Eliza 1141. urtean sagaratu zuten, eta ordutik ehunka Asolbizio Eguna izan dira».

Asolbizio Eguna elizako jai da, Aierbek erran duenez. Bost meza ematen dira goizean:

09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan eta 13:30ean. Jendeak bere defuntuen aldeko mezak agintzen ditu.

Irailaren 29a ere egun handia da Aralarko santutegian: San Migel Eguna, hain zuzen ere. Aurten larunbatean izatea egokitu da, eta, horregatik, jende asko biltzea espero dute, «Asolbizio Egunean baino gehiago».

→ Asier Azpilikueta

## Jauntsarats

### Nekazaritza ekologikoaren gaineko jardunaldiak

IRAILAREN 2AN, IGANDEAREKIN, Nekazaritza Ekologikoa eta Kontsumo Berdearen I. Eguna eta Erakusketa eginen dute Jauntsaratsen. Baina egun horretara ailegatu aitzin, informazio eta sentsibilizazio jardunaldiak eginen dituzte herrian. Hitzaldiak aste honetako eta hurrengoko ostiral eta larunbatetan izanen dira, 19:00etatik aurrera, Jauntsarasko udaletxean. Hitzaldi guztiek bi ordu iraunen dute, guti gorabehera.

Gaur bertan, Manuel Esparzak *Baratze ekologikoa* izanen du mintzagai: nekazaritza ekologikoa, luraren ezagutza eta landatzeko hainbat era. Bihar, Jose Miguel Ameztok *Ekologizatze prozesua* izango du hizpide: ekoizpen ekologikorako urratsak, Europako arautegia eta tramitazioak.

Jardunaldien bigarren zatian, hilaren 31n, ostiralarekin, Maria Jose Satrustegi eta Maria Luisa Migueliz *Elikadura eta etiketatzeaz* solastatuko dira: elikagai biologikoak, ekologikoak, organikoak eta transgenikoak. Azkenik, irailaren lehenean, larunbatekin, Juan Luis Herrero *Bioeraikuntza* izeneko mintzaldia eskainiko du: gai alternatiboak, bioklimatika eraikuntza sistemak eta geobiologia eraikuntzan.

Jardunaldi horiek eta irailaren 2ko egun osoko besta Basaburuako Garapen Batzordeak antolatu ditu, Cerderna-Garalaur elkartearen laguntzaz.

→ Asier Azpilikueta

## Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



ENE begiko fitsa bat da ekonomia. Egunero irakurtzen dut-ditut egunkaria(k). Hilabetero informazioa biltzen dut han-hemenka, zenbaitetan izokin koloreko orrietan pausatzen ditut begiak, bertzeetan gris arruntenetan, oro har ekonomien gain begiratua ematea laket dut. Tristura indartzeko, errealtateak ezagutzeko. Zer dakit nik zertarako.

Kapitalismoan bizi gira oraino. Noizean behin merkatuen disfunkzioez mintzatzen zaizkigu buru grisak. Burtaren mugimendu erratikoen gainean eraiki dute literatura bat, sasi-hizkera bat, zezenketaz aritzearen parekoa, horren barrokoa izan gabe. Eufemismoen azpian gosea datza eta izurriteak daude eta milioika pertsonak

## Ekonomiaz, bat

jarraitzen dute esperantza ukaturik eta gu **happy** gaude inbertsore txiki izanik. Kontent munduari egiten diogun ekarpenarekin, bai horixe!

Adibide ezagun eta argigarri bat, errealtatearen kariaz: **Gescartera** dabil bolo-bolo. Hari ugari ditu, ikuspegi ezberdinetatik azter daiteke kontu ilun hau: nola jokatu duten burtsan, burtsaren beraren papera egun, nortzuk ziren bezeroak (GKEei buruz eleka gaitzek luze eta sakon, eliza katolikoaz unatu niz), justizia espainiarren (bi kontzeptu biziki urrunak) papera auzi honetan eta abar. Guregana etorri, bertze mafia baten berri eman nahi dut. **Retena** du izen artistikoa. Milioika milioi libertitu (barka, inbertitu erran nahi izan dut; disle-

xia, dislexia) omen nafarrok Internet gertuago ukan dezagun. Esker mila interes interesatuagatik. Kontu ilunak badaudela emaiten du —milioi antizen elkartzearekin bat etortzen da iluntasuna—. Diruak ez du aberrik, ez eta etikarik ere, are gutxiago erabiltzaileak. Badirudi dirua pilatzen delarik argia itzaltzen dela, eta gerizpe horretan esku gaiztoek abiadura handiko mugimendu zehatzak egiten dituztela. Alkohola gisa, dirua desagertzen da, egun sargorietan batik bat. Nolabait irudikatzen. Nik ez dut hemen idatzi deus zehatza Retenaren aurka, ez baitut frogarik. Hari optikoa heldu aitzin optika judiziala helduko da. Perretxikoak euriaren zain bezala, esperoan nago, bertzerik gabe.

# Erronkari • Igandean omenduko dute Fructuoso Orduna

**Erronkariko Udalak  
Fructuoso Orduna  
eskultorea (1893-1973)  
eta haren lana gogora  
ekartzeko abian  
jarritako kanpainaren  
baitan, omenaldia  
eginen diote igandean,  
Erronkarin.**

Erronkariko udaletxean artista horren erakusketa  
zabalik izanen da egun osoan



Fructuoso Ordunak Julian Gaiarrerri eskainitako monumentua, Iruñeko Takoneran, eta eskultorearen argazkia. ● JOXE LACALLE

**E**KITALDIK GOIZEKO 11:00etan hasiko dira; ordu horretan, Ordunaren erakusketa zabalduko dute udaletxean. Artistaren hainbat obra ikusi ahal izanen dira, eta, horretaz gain, argazkiak, diplomak eta beste hainbat agiri. Erakusketa inauguratu ondoren, Ordunaren hilotziaren aurrean errespontsua otoiztu eta udal agintariak lore sorta jarriko dute. 12:00etan, meza izanen da, San Esteban parrokiaren.

Omenaldi herrikoia 12:45ean izanen da, Erronkariko frontoian, Ordunak berak egin Julian Gaiarrerren monumentuaren aurrean. Han, agintarien agurraren ondoren, lore eskaintza eginen dute, eta Ordunaren omenezko plaka inauguratuko dute. Eguneko ekitaldiak Bailarako Etxean amaituko dira (Erronkariko Batzorde Nagusiaren egoi-

tzan), 13:00etan. Han, Erronkariko alkateak hartuko du hitza, eta, ondoren, Fructuoso Ordunak Erronkariko bailarekin izandako harremana ekarriko du gogora Fernando Hualde ikertzaileak.

#### Udalaren ekimena

Urte hasieratik, bailarako seme Fructuoso Ordunaren figura eta obra nabarmentzeko eta omenezko hainbat ekitaldi egiten ari

da Erronkariko Udalan. Orduna, Erronkariko Seme Kutun da 1962. urtetik.

Udalaren ekitaldi sorta horren baitan, igandeko omenaldiaz gain, abian jarri dute bailaran —Erronkarin eta Garden— dauden Ordunaren obrak seinatatzeko eta garbitzeko ekimena; eskultorearen bizitzari eta lanari buruzko triptikoa argitara eman dute; Nafarroako Museoarekin batera, Ordunari buruz-

ko agirien artxiboa osatzeari ekin diote; eta, azkenik, bi hilabetetik behin kaleratzen den Ordunaren aldeko kanpainari buruzko argitalpena prestatu dute.

Fructuoso Orduna Mariano Benlliurerekin ikasle izan zen; 1922. urtean Arte Ederretako Erakusketa Nazionalean urrezko domina eskuratu zuen *Post Nubila Phoebus* obrarekin. Obra hori Nafarroako Museoko sarreran dago egun. 1962. urtean, berriaz, San Fernandoko Arte Ederretako Akademiakoa izendatu zuten.

Nafarroan egin zituen obra ezagunen artean aipatu behar dira Nafarroako Jauregiko frontisa eta Julian Gaiarrerren monumentua, Iruñean; Cesar Borgiaen monumentua, Vianan; San Frantzisko Xabierren monumentua, Xabierren; eta Julian Gaiarre eta Pedro Navaroren monumentuak, Erronkari eta Garden. hauek batzuk baino ez dira; Ordunak 112 eskultura ditu katalogatuta.

→ Fernando Hualde

## herri aldizkariak Edurne Elizondo

### ‘Mariñela’, berritu edo puskatu?

‘Mariñela’ itsasontziaren etorkizunaz aritu da **Herria** astekaria bere azken zenbakian, ez baitago batere argi arrantzontzi zahar horrekin zer gertatuko den. Hasierako asmoa zen berritzea ondare gisa erakusteko, baina azken boladan entzun dira ontzia suntsitu beharko dela erran duten hotsak. Afera aztertu du **Herriak** bere orrialdeetan: «Mariñela izana da Donibane-Ziburuko arrantza untzi ederrenetarik. Duela hamar urte, gelditu zen arrantza ibiltzetik, xaharitzen ere hasia baitzen. Berehala, jendea ha-

siz zen mugitzen, untzi hori behar zela artosi begiratu. Behar zela ere xaharberritu, bainan deusik kanbiatu gabe, erran nahi baita bere hoberen hartan zen bezala berriz ezarri. Itsas-Begia elkarteak bazterrak harrotu zituen, Ziburun edo hor nunbait behar litekeela itsas-ondarearen erakustegi bat muntatu eta Mariñela untziak bere tokia holako erakustegi batean lukeela».

«Behin hortakoak direnek erran zuten bi miliun xahutuz xaharberritzen ahal zela. Nahiz gobernuak ere laguntza pollita hitze-

man, etzuten aski diru segurtatu obra horien egiteko. Orain, ba omen lukete orduan aipatu zen hein hura bainan artean untzia bera azkarki andeatu da eta orain lau edo bost miliun nunbait han behar omen litazke xaharberritzea moldez egitekotan!».

«Oraiko ustez beraz, Mariñela untzia puskatuko da hemendik Urtats aintzin. Ditu muntadura berezi batzu atxikiko dira haatik. Beste bilkura bat egiteko dute halere irailaren 15ean, orduan jakinen da harat-hunata».



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Tontolabizatuak

Bexikulasek (Larraburu-Eneko nire etzezaina; beno: etzezaina, txoferra, lorezaina eta prentsa arduraduna) gosaria terrazan zerbitzatzen zidan mementoan, tontolabizatuak gaudela esan dit. «Erabat tontolabizatuak gaude, jefe» (hitzez hitz). Eta segidan nik eskatutako (eta berak egindako) Gazteluko plazari buruzko dosierra mahai gainean jarri du. «Hemen duzu txostena, jefe. Baina, kasu, irakurriko dituzun obra horren kontrako argudioak hutsalak dira. Alkatearen jaioterriarekin tematzen dira batzuk... beste batzuk botatako zuhaitzekin... eta gainontzekoak lur azpian dauden eta kaltea jaso dezaketen harri zaharrek... ptx!».

Gero nire ondoan eseri da eta «gauza horiek guziak begi bistakoa bezain hutsalak dira!», bota du, eta ondok burugogor: «Funtsezko gauzak ikusezinak dira». «Adibidez?», galdetu diot kafe hotz eta nazkagarriari zurrupada bat hartuz. «Adibidez, hiriko txirindulak, jefe», erantzun dit segituan. «Zuk zer ikusten duzu txirindula bat hiri erdian ikusten duzunean?», galdetu diot. «Bada... erantzuna erraza da Bexikulas, nik ikusten dudana hiri erdian dagoen txirindula bat da». «Ez ba!, jefe, oker zaude! Hori begi bistakoa da! Ptx!». «Zer ikusi beharko nuke bada?», galdetu diot pixka bat moskeaturik jada. «Mila gauza. Lehenik eta behin, kotxe baten falta. Zeren txirindula bat dagoen tokian desagertutako kotxe bat dago! Bi hautabideen artean (kotxea edo txirindula), txirindula izan da aukeratua, baina ez da alboratutako hautabidea zertan ahaztu! Ez horixe! Txirindula bakoitzaren atetik halako Kotxe Mamu bat dabil beti, mamuen antzera nahigabeturik bizitzera zigortuta balego bezala, zarata eta kerik ez ateratzeko betiko kondenaturiko kotxe mamua! Desaktibatutako ankerra! Eta billabesen atetik 20 bat kotxe mamu daude!».

Ados nagoela esan diot, baina ez dudala ikusten Gazteluko plazarekin duen harremana. «Nik horrela ikusten dut jefe», esan dit orduan. «300 kotxerentzat egin nahi dute aparkalekua. Kotxe bakoitzaren atzean Txirindula Mamu bat dago, errealitatera itzultzeko irrikan, inongo lekuri hartzen ez duen trastea. 300 txirindula horiek dira irudikatutako behar ditugunak. Hau da: 300 txirindula publikorekin ez dela hainbesteko triskantzarik egin behar, 8 billabesa publikorekin aski dela, kotxeekin tontolabizatuak gaituztela, alegia». ●

# Soka batetik zintzilik lanean

Aldamioaren ordezkak erabiltzen dituzten konponketa enpresen lana handitu egin da azken urteetan.

**Egunotan, EGUNKARIAK Iruñeko Irrintzi dorrean duen egoitzako leihoak beheara sartu eta atera ibili da pare bat pintore. Dorre barneko patioa mila metro koadroak zuriz margotu dituzte; hamahiru solairu; 39 metroko altuera. Egunero zazpi bat ordu zintzilik egoteak bizilagunen ikusmina sortu du, baita Nafarkaria-rena ere. Horrelako lanak ugaltzen ari dira Iruñean.**

EDOZEIN MOTATAKO MARGOTZE LANAK EGITEN dituzte Rafak eta Carlosek. Edozein lekutan eta edozein estilotan, aldamioekin edo aldamiorik gabe. Udan, batez ere lan bertikalak egiten dituzte, «eguraldi ona aprobetxatu behar baita», Rafak dioenez. Pinturas Mutilloa Siglo XXI enpresan horrelako lanez arduratzen diren langileak dira Rafa Gonzalez Mutilloa (34 urte) eta Carlos Maldonado Vassallo (37 urte). Lau bat urte darmatzate soka batetik zintzilik, margotzen.

«Guri espeleologia egitea gustatzen zaigu, eta arroiak jaiste, baina soka batetik zintzilikatu baino lehen, pintoreak ginen», komentatu du Rafak. «Leize batera jaisteko erabiltzen dugun material berbera erabiltzen dugu lan egiteko: soka, mosketoiak, yumas-a, jaisgailua, segurtasun blokeoa... Dena berdina da. Kontua da lanean espeleologia teknikak aplikatzea».

## Lanean, lasai

Rafak eta Carlosek zortea izan dute Irrintzi dorrean. Izan ere, normalean, behetik gora egin behar izaten dute lana, eta yumas aparatuekin igo, goiko pisuetako bizilagunek ez baitiete uzten euren etxetako leihoak ateratzen. EGUNKARIAren leihoak beheara lasai asko jaitsi dira.

«Horrelako altueratan lan egiten denean, ziurtzat jo behar da paraturiko segurtasun sistemak funtzionatuko duela», komentatu du Rafak. Lehendabizi, sokak goian ongi lotu behar dira, tinkoa dela ikusten den zerbaiti. Eta, halakorik ez badago, jarri egin behar da. Rafak dioenez, «lasai egin behar da lan; bestenaz, ezin izanen zenuke lanik egin».

Sokak tinkatzeko arazo gehiago dituzte eraikin zaharretan berrietan baino. Izan ere, urtean poderioz, zementua hondar xehe bilakatzen da, eta paretak zatiak erori egiten dira. Horrelakoetan zaila da ainguraketa egitea. Arriskua handiagoa dago, baina horrek ez du erran nahi horrelako eraikinetan lan egiten ez dutenik. «Lehenik eta behin, profesionala izan behar duzu», dio Rafak, benetako pintore izaera azaleratuz. «Inork aurrekontua eskatu eta onartzen badizu, lana egin behar diozu».

## «Kontuz, eroriko zarete eta!»

Goizean, etxeko pertsiara igo, eta pertsona bat leiho ondoan zintzilik ikusteak ezustean harrapatzen du bizilaguna. Ondoren beldurra dator. Noiz edo noiz baten batek zangoak hartu dizkie beheara eror ez daitezela. Bes-



te batzuek pertsiara ixten dute. Gero ikusmina sortzen da. Normala, ez baita ohikoa, nahiz eta horrelako lanak geroz eta gehiago egiten diren.

«Honek ez du aldamioekin ibiltzea baino arrisku handiagorik», erran du Rafak. «Aldamioan, aniztatan, sokarik gabe ibiltzen zara leku batetik bestera; hemen, berriz, uneoro zaude loturik; ekipatzen zaudenean izan ezik, orduan ez baitzaude inora lotuta. Beraz, arriskurik handiena urreratzean dago: soka hartu behar duzunean, leihoak atera behar denean, aseguruak jarri behar direnean... Baina behin lotuz gero, eta egin beharrekoa eginez gero, ezinezkoa da erortzea».

Sokatik zintzilik, ez dira arduragabe ibiltzen segurtasunarekin. «Edozein lan arriskutsua da, kontu handiz egiten ez bada», aipatu du, azkenean, Carlosek. «Baina egiten ari zarene buruan izanez gero, ez da deus gertatzen. Horregatik, istripu gehiago daude aldamioetan, lan bertikalean baino; sokaz eginiko lanetan ez baita inoiz ere tentsioa galtzen».


Ez dute istripurik izan Rafak eta Carlosek. «Gehienez ere, sustoren bat», Rafaren hitze-

*«Horrelako altueratan lan egiten denean ziurtzat jo behar da paraturiko segurtasun sistemak funtzionatuko duela»*


tan. «Adibidez, gaizki tinkaturiko lokarria benetan tinkatzen denean, soka askatzen dela ematen du, baina ez da hala. Segurtasun tresnak etengabe berrizatu behar dira, eta aztertu. Eta, hala eginez gero, tresnek ongi funtzionatzen dute». Hain zuzen ere, Rafak eta Carlosek sustorik handiena hartu zuten arazo psikologikoak zituen bizilagun batek soka moztu zienean. Eskerrak ordurako soka kentzen ari zirela.

## Bizkorrago, merkeago

Pintore hauek makina bat ordu egiten dute zintzilik, eserleku gainean, zangoak mugitu gabe. Horrek mina eragiten die, lunbarretan eta sorbaldan. «Askotan joan behar da masajistarengana», komentatu du Rafak. Bestela ere, lan mota honek abantailak besterik ez omen ditu. «Askatasun handia ematen digu lanak», komentatu du Carlosek. «Goizeko 09:00etatik ikus-



Asier Azpilikueta



Joxe Lacalle

ten dugu Iruñea. Zuek Irrintzi dorrean ikuspegi izugarri ederra duzue, baina beti gauza bera ikusten duzue. Guk ez».

Rafaren hitzetan, «ezbairik gabe, lan honek duen onena da kalean lan egitea. Material toxikoekin lan egiten dugu, eta, kalean gaudenez, airea arnasten dugu, eta ez pintura. Bigarrenik, aipatzeko da sokekin lan egiten duzunean jendeak gehiago errespetatzen zaituela. Beldurra ematen die guk egiten dugunak, arraroa iruditzen zaie, eta lasaia uzten gaituzte. Etxe baten barnean bezeroarekin harreman zuzena dagoenean, zailagoa da haiekin ongi moldatzea. Aldiz, hemen, lan egiten dugun bitartean lasai uzten gaituzte». Dena dela, materiala lapurtzen ohi diete. Irrintzi dorrean 20 metro soka lapurtu zieten.

Lanaren kalitateari dagokionez, Rafak eta Carlosek ziurtatzen dute aldamioekin edo sokarekin egiten diren lanek kalitate bera dutela. Aldea lastertasunean eta prezioan dago. Sokaren sistema normalean bizkorra-

Joxe Lacalle

goa da, aldamioa jarri eta kentzeko denborarik ez baita galtzen, eta, hortaz, ez da kobratzen. Horregatik, sistema horrekin eginiko lanak %30-35 merkeago dira. Gainera, aldamiorik ez dagoenez, ez dago eraso estetikorik, sokak apenas ikusten baitira.

Jon Redondo SIMA ENPRESAKO GERENTEA

## «Langileak nahi ditugu, ez eskalatzaileak»

LEHENIK ETA BEHIN, ARGI gera bedi Rafa Gonzalez eta Carlos Maldonado pintura enpresa batean lan bertikalaz arduratzen diren langileak direla. Baina euren enpresa, berez, ez da lan bertikalako enpresa bat. Zintzilik egoten ikasi duten pintoreak dira Rafa eta Carlos.

Nafarroan bada sokaz eginiko lan bertikalean espezializaturik dagoen enpresarik. Horietako bat Sima da. Jon Redondok sortu zuen Sima, duela hamar bat urte. Egun, beste hiru bazkiderekin gobernatzen du enpresa, eta 21 langile dituzte. Siman era guzietako lanak egiten dituzte, soka batetik zintzilik.

Jon Redondo hagitz harro dago, Siman segurtasunean, kalitatean eta langileen heziketan indar handia egiten dutelako. Sima aitzindaria da lan bertikalen segurtasun kontuetan. Horregatik, haserre puntua hartzen du beste hainbat lanaz hitz egiten duenean.

### ■ Nola ikusten duzu lan bertikalen sektorea?

Sima sortu nuenean, nire asmoa zen enpresa sendoa sortzea, urte guztian lan egiteko. Iruñeak lan bertikalen enpresa profesionala behar zuen. Sima baino lehen Arista izeneko enpresa aitzindaria zegoen. Baina hainbat huts egin ostein desagertu zen, ez baitzen funtamentuzko enpresa. Sektore honetan badago udan bakarrik lan egiten duen jendea, dirua irabazi eta gero mendira joateko. Enpresa asko sortzen eta desagertzen da. Eta ez dira desagertzen lan eskasia dagoelako, kudeaketa txarra egiten dutelako baizik. Lana gaizki egin eta ez dute kobratzen, ez dute ordutegirik, ez uniformerik... Hori ez da enpresa antolatze modu ona. Horrek momentuan dirua irabazteko balio du, baina ez enpresa sustraitzeko, jendeak profesionalak nahi ditu eta. Aristan langile guztiak ziren eskalatzaileak. Sima ez dugu eskalatzailearik nahi. Hau ez da eskalada, lana da, oso lan espezifiko. Etortzen zaiguna igeltseroa edo pintorea den axola zaigu. Langile bat nahi dugu, ez sei hilabetez mendira joan zaigun eskalatzailea.

### ■ Ez duzue eskalatzailearik nahi, baina gehienek praktikatzen duzue eskalada edo antzeko kirolen bat, ezta?

Bai, idazkariak izan ezik, guztiak gustuko ditugu mendi kirolak. Are gehiago, Sima afizio batetik abiatuta sortu zen. Baina, egun, kontrako bidea egiten dute gure langileak: lanetik sortzen zaie afizioa. Izan ere, gure langileak, teknika asko ezagutzen dituztenean, ikusten dute mendian oso ongi ibiltzeko gai direla.

### ■ Lan bertikalen heziketa ikastaro homologatuak eskaintzen dituen enpresa bakarra da Sima. Indar handia egiten duzue segurtasun kontuetan.

Hala da, bai. Segurtasunarena arras garrantzitsua da guretzako. Askok, ezjakinta-



Patricia Astrain

guztiak imitatzen ditugu. Langile bakoitzarekin 300.000 pezeta inguru gastatzen ditugu heziketan. Hemendik ateratzen direnean, benetako profesionalak dira.


### ■ Ba ote dago legerik sokaz eginiko lan bertikalak arautzeko?

Ez dago lege edo araurik zuzenean guri dagokigun; baina, izatez, eraikuntza eta segurtasun arau askok eragiten dute gure lanean. Kontu handiz erreparatzen diegu horrelakoak. Izan ere, badira bete beharreko arau batzuk, askok betetzen ez dituztenak. Adibidez, jendeak jakin beharko luke eskalada arnasa ezin dela lanean erabili, segurtasun arau bat urratzen duelako, arnes sendoagoa behar da. Eta horrelako beste hainbat kontu dago, jendeak ezagutzen ez dituenak.

## Simak

lan bertikalen segurtasun gida liburua aterako du laster Desnivel argitaletxearekin.

Webgunea: [www.sima-sil.es](http://www.sima-sil.es)



Sima enpresaren egoitzan dagoen praktika aretoa.

Patricia Astrain



# Banaketa

**Lanbroaz.** Maite ditut maite gure bazterrak lanbroak izkutatzen dizkitenean. Ez diot nik kontra eginen **Mikel Laboari**. Nolanahi ere, gure bazterrez eta Laboaz ez, baina lanbroaz, lainoaz, hodeiez eta ur lurrunez osaturiko gaintzeko guztiez nazka-nazka eginda nago. Hilaren hasierarekin batera Zarautzera heldu ginenetik, eguzki printzeak alokairuzko 14 hazbeteko telebista mikroskopikoan baino ez ditut ikusi —hori da, hori, pantaila txikia—, **Mitch Buchannonen** hondartzako zaindarien anatomia silikonatuen kontra dir-dir. Portzierto, esaten dutenez, telesaila gaztetan Kontxan sorosle lanetan aritu zen **Mikel Bujandaren** bizitzan oinarriturik dago. Fikziozko zaindariaren eta irrati gizonaren izenen arteko parekotasun fonetikoak ukaezina da.

**Zabalaz.** Gaurtik abuztua ahitu arte **Lizardiren** sorterrian eguzkia egunero zeru oskarbi urdin bizian indartsu azaltzen ez bada, **Pello Zabalen** sotanara kateatuko naiz. Betiere, **Aita Mundingaren** euskal oinordekoak —landareez solasean aritu ordez eguraldiaz aritzen da, baina hitz egiteko doinu eta betaurreko berberak ditu— sekula sotana janzen badu. Nik elizgizon guztiak lege zaharrek agindu bezala 33 botoiko sotana jantera behartuko nituzke. Bagara ala ez gara? Bada, baldin bagara, nabari dadila, dedio! Kamuflatzerik ez!

**Estuaz.** Izan ere, desesperaturik nago. Ezin dut gehiago jasan. Ez dakit

● GARI GARAIALDE



Pello Zabala, eguraldi iragarlea.


askoz gehiago eramaterik izanen dudan. Izan ere, jasanezina da Zarauzko Kale Nagusian urtero abuztuan alokatzen dugun 50 metro koadroko pisuan bi seme-alabekin, Action Man urpekariarekin, Godzillaren koltxone-tarekin, eta Barbierekin, Kentekin eta haien kapotarik gabeko autoarekin bizitzea, baldin eta goizero guztiok hondartzara bidaltzerik ez baduzu.

**Negarraz.** Jonen eta Larraitzen barreek, negarrek, algarek, korrikaldiek gaindituta, larrialdietarako irtenbide moduan, aurrekoan Igeldora eramaten saiatu nintzen. Haatik, Port Aventura, Terra Mitican eta Eurodisney egon eta gero, hura iragan sanferminetan foru hiriburura etorri zirkuko

ligrea —erdi-lehoia, erditigrea!— baino tristeagoa iruditu zitzaion. Negarrari ekin, eta autotik jaisteari uko egin zioten, temoso. Zigor gisa **Maria Luisa Secok** aurkeztu *Hola chicos* saio guztien bideo bilduma ikusarazi nahi izan nien, haurtzaro benetan gogorra zer den ikus zezaten. Haien amak, alta, ez zidan utzi, Hagako Nazioarteko Auzitegia, Estrasburgeko Auzitegia, Genevako Hitzarmena eta Giza Eskubideen Adierazpenak horrelako ekintzak debekatzeko dituztela argudiatu.

Hartara, aurtengo oporretan ezagutu dudan ikertzaile iruindarrarengana, Ferminengana jotzea erabaki dut, laguntza eske. Gure lagunarteko afari,

● EGUNKARIA



Mitch 'Bujannon', Zarauzko soroslea.

bazkari guztietara etorri da, eta hamai-ka bider saiatu naiz berarekin hitz egiten, argi ziezadan zer demontre egiten duen. Zer demontre ikertzen ahal den Iruñean. Haatik, ez dut lortu. Nolanahi ere, pentsatzekoa da batez ere hankarteko kontuak, edo akaso, hobeto adierazita, sakelakoak ikertuko dituela, banaketak eta dibortzioak. Izan ere, nire seme-alabengandik dibortziaz erabaki dut.



## panpilonia zirkus

# Pamplonaziortea

Itsasertzeko haizekirria aire girotu bihurtu da. Basoaren berdea asfalto beltz. Metropoli handia hiri txiki.

Itsasoa, mendia eta ziutateak iragana. Lurreratu, maleta desegin eta oporren karpeta artxibatzeke tenorea da.

Manhattan atzean utzi eta New Yorkeko Brooklyngo zubia zeharkatu genuen ueña ekar dezakegu gogora, Arrotxapea gibelan utzi eta argiz beteriko Oblaten zubi gainetik abiatzen garenean.

Lisboako Alfama auzora igotzeko tranbiak ihes egin digunez, Cotup eta Montañesako billabesetan bidaia laburrak eginez moldatu beharko dugu.

Auroro goiztiarrak eta unibertsitateko tunoak kantuan hasiko dira aurki, Habanako Malekoian ikasi ditugun abesti ederrak isilarazi nahian.

Tangerko faroak ez du argituko gure in-

guru, baina poliziaren sirenak ez direnez itzaliko, egoera iluna ikusteko arazorik ez dugu izanen.

Antoniutti parkean ahate zalapartariak eta orein adarluzeak ikusi ondoren, Madrilgo Retiroko parkean igarotako arratsalde beroaz akordatu gara.

Londresko Big-Ben dorreak ez du neuruko gure denbora. Aurrerantzean, La Vasco-Navarraren pantailan jasoko dugu orduaren berri.

Alde Zaharreko Santa Ana plaza berriz zabaldu eta bertako ijitoen flamenko doinuak aditzeko gogoia piztuko zaigu, Donostiako Trinitate plazako jazzaren oihartzuna galtzen dugunean.

Urrutiko Saharako dunak pentsamenduan hurbil daudenez oraindik, astebururen batean Bardea zeharkatu dezakegu oinez edo bizikletaz.

● JOXE LACALLE



Iruñea, nazioarteko hiria.

Zutik dirauten harresien babesean jarraituko dugu Iruñean, Berlingo hormaren hondar zenbait etxera ekarri ondoren.

Erromako Koliseoko gladiadoreen tokiak, Azuelo kaleko anfiteatroan patinetezaleen jauziak ikusiko ditugu.

Eliza ugari ditugu Iruñean noiznahi otoi-tz egin eta gure bekatuak aitortzeko.

## Pello Argiñarena

Horrenbestez, ez dugu zertan Jerusalemgo Arranguren hormaren beharrik.

Buenos Airesko Maiatzaren Plazako desagertuñ amak bezala, Merinaldeen plazan euskal preso senideek biltzen jarraituko dute ostiralero.

Andorrako dendetan erosketak egin beharrean, laster altxatuko duten Corte Inglesean xahutuko dugu gure dirua.

Bartzelonako Ramblak Sarasate pasealekuan, Niagarako ur-jauziak Itoitzen, Bilboko Guggenheim museoa Baluarte berrian, Glasgowko golf zelaiak Zuastin, Segoviako akueduktua Noainen, Bagdadeko Martirien tenplua Erorien monumentuan, Washingtongo Etxe Zuria Diputazioko Jaurerrian, Kopenhageko Tivoli enparantza Takoneran, Aljerko Kasbah Gotorlekuan, Amsterdamgo squaterrak Gaztetxean, Pragako Wenceslao bulebarra Gazteluko plazan, Tokioko neonezko argiak Donibanekeko pubetan, Belfasteko liskarrak Txapitelan... Jira-biran zorabiatu aurretik, adio.

# Jose Mari Uztarroz

NAFARROAKO ARTZAIN EGUNAREN ANTOLATZAILEA

## «Gurearen kalitatea eta jatorria zaindu behar dugu»

**E**USKAL HERRIAN DUGUN ARDI latxa, hemengo gazta eta gure artzain zakurraren arraza nola edo hala babestu beharra dago Jose Mari Uztarrozen ustez, hori baita berezi bilakatzen gaituena eta lehiatzeko parada ematen diguna. Artzainez, zakurrez eta haien omenezko bestaz mintzatu zaigu.

■ **Zenbat artzain bilduko dira Geinberako barrutian aurten?**

Urtero bezala, zortzi edo hamar bat etorriko dira, Nafarroa osotik. Gehienek zakur bakarra ekartzen dute, baina bada bi ekartzen dituenik ere. Nafarroako txapelketa da, eta lehenengo biek Euskal Herrikora joateko txartela eskuratuko dute. Txapeladuna, gainera, nazioarteko txapelketara joanen da.

■ **34. ekitaldia duzue aurtengoa; zein da hainbeste urtez bestari eusteko sekretua?**

Lan egiteko konpromisoa hartu duen lagun talde bat egon dela beti atzean. Artzain Eguna folklore kutsua duen besta da, baina, horretaz gain, egun hori mamitza lortu dugu. Artzain Eguna da, batez ere, artzainen lana eta kultura ezagutzera emateko eta zabaltzeko eguna, hori da garrantzitsua.

■ **Artzainei omenaldia egiteko besta da, beraz?**

Bai, dudarik gabe. Gure ustez, argi izan behar dugu hemengo ardi latxak eta hemengo gazta, bai eta hemengo artzain zakurrak ere, bereziak direla eta berezitasun horri eutsi behar diogu. Artzain Egunaren bidez mezu hori zabaltzea nahi dugu. Gureari eutsi behar diogu den bezala, bere hartan, berezitasun hori baita, gure produktuen kalitatea eta jatorria, lehiatzeko dugun aukera bakarra.

■ **Ba al du berrikuntzarik aurtengo egitarauak?**

Funtsean betikoa izanen da aurten ere, hainbat txapelketa artzainen, zakurren eta gaztagileen trebezia erakusteko. Horrekin batera, herri bazkaria izanen da, eskulangileen azoka eta beste. Aurtengo berrikuntza izanen da iaz egin genuen gazta erraldoia dastatu ahal izanen dutela bisitariak plazan. 60 bat litro esnerekin egindako gazta

da; aurten ere halako bat egingen dugu, edo handiagoa.

■ **Euskal artzain zakurra aipatu duzu, eta hura da, artzainekin batera, zuek antolatzen duzuen bestako beste protagonista nagusia.**

Bai, noski. Euskal artzain zakurra dugu, eta gure lana da ezagutzera ematea. Jendeak ikusi behar du euskal artzain zakurra nolakoa den. Badira euskal artzain zakurra ez den beste arraza batzuk, baina betidanik erabili izan dira Pirinioetan, eta, noski, onartzen ditugu. Kontua da atzerriko arrazak sartzen hasi direla, eta gu horrekin ez gaude ados. Gainera, euskal artzain zakurra oso ona da, azkarra eta trebea.

■ **Nolako ezaugarriak ditu?**

Zakur gorria da, erdiko tamainakoa. Bi mota daude, bat Gorbeiakoa deritzona, gorri-gorria, eta, bestea, iletsua; ez da hain gorria, eta ilea harrotuagoa du. Duela bost bat urte onartu zuten euskal artzain txakurra arrazatzat, eta geroztik ezagutzera emateko eta zabaltzeko lanean ari gara gu.

■ **Euskal artzain zakurra bezala, euskal artzaina ere zaindu beharra al dago?**

Argi dago egoera ez dela ona, eta, dudarik gabe, galduko dela artzainaren ofizioa, orain arte izan dituen ezaugarriak bai behintzat. Horrek ez du esan nahi, hala ere, artzainak desagertuko direnik. Aldatu, bai, aldatuko da ofizio hori. Artaldeak

**34. Nafarroako Artzain Eguna ospatuko du Uharte-Arakilgo Aralar-Mendi elkarteak igandean, Geinbera barrutian. Artzainen bizimoduaren berri eman eta haiek omentzeko besta da, eta jende ugari biltzen du urtero. Jose Mari Uztarroz antolatzailearen hitzetan, lagun talde baten konpromisoa dago egun horren arrakastaren atzean.**

gero eta handiagoak dira eta artzainen lana profesionalizatua dago, mekanizatuagoa. Bizimodu berriak horixe eskatzen du, eta horren kontra joaterik ez dago. Gazteen artean ere gutxi izan nahi dute orain artzain; artaldeak ez du barkatzen, egunero zaindu beharra dago, baina egun badirudi oportetean joaten ez dena ez dela mundu honetakoa. Argi dago aldaketa ugari gertatzen ari direla, eta, horietako bat da, adibidez, artzainak orain elkartzen ari direla, bakarrik baino bizpahiru lagunekin batera inbertsioak egitea errazagoa delako.

■ **Euskal artzainaren bizimodua ezagutarazteko egiten duzuen lanak nolako harrera du jendearen artean?**

Oso ona, jende asko biltzen da urtero Uharte-Arakilera,

«Egoera ez da ona eta, galdu egingo da artzain ofizioa; orain arte izan dituen ezaugarriak bai, behintzat»

Euskal Herritik eta kanpotik ere bai. Jendeak gozatzen du, eta badaki ikusteko gauza asko egoten dela Nafarroako Artzain Egunean. Aurten ere hala izanen da; eguraldi ona eskatu dugu dagoeneko, eta ziur gara halakoa izanen dugula.

→ Edurne Elizondo

### egitaraua

#### Nafarroako Artzain Eguna

Hilaren 26an, igandea, Uharte-Arakilgo Geinbera barrutian



10:00: Ardi gaztaren XX. txapelketa. Saritutako gazten enkantea eta feria.  
10:00-13:00: Ardi Latxaren XVIII. Erakusketa, eta Ardi Emankorrenaren Txapelketa.  
11:00-13:00: Nafarroako XIII. Ardi Mozte Mekanikoaren Txapelketa.  
11:00-12:00: Euskal Artzain Zakurren eta Pirinioetako Artzain Zakurren IX. Erakusketa.


12:00: Parte-hartzaileei omenaldia.

12:15: Ardi Gisuaren Txapelketa eta dastapena.


14:00: Herri bazkaria frontoian.

17:00: Nafarroako 34. Artzain Txakurren Lehiaketa.

Egun guzian artisauen azoka, dantzak eta gazta egiteko modu tradizionalaren erakustaldia izanen dira.



• JOXE LACALLE



## Nafar Kronika

Daniel Urrutia

### Murtziako egia

Bada, bai, uztailen Espainia aldean izan nintzen oportetan, Murtzian hain zuzen ere. Inbidiarik ez, arrunt itsusia baita. Kontua da ailegatu nintzelarik legionellarekin gora eta behera ari zirela, eta primeran datorkit hangoa gogoratzea, hemengoa epaitzeko.

Euskal Herriaz kanpoko lekuetara joaten naizenean, hango egunkariak erostea gustatzen zait, gutaz eta euren buruaz duten ikuspegiak jabetzeko. *La Verdad de Murcia* periodikoa hartu nuen kioskoan, Murtziako «egiaz» elikatzeke. Uztailaren 13a zen, ortzirala, eta gogoz irakurri nuen, eguzkitako erosi berriaren gerizpera, Correo taldeko egunkaria. Badakizue, marra gorria mantxetaren azpian, informazio uholdea, maketazio negargarria eta bertsio ofiziala.

Lehenengo hamar edo hamabi orrialdeak legionella kasuari eskaini zizkion *La Verdad*-ek egun horretan. Erregaia nahikoa eta soberan zuten: Murtziako Gobernuak deskubritu berri zuten bakterioa hiri erdialdeko hamalau instalazioetan zegoela; ordu arte 575 ziren kutsaturiko pertsonak eta bi hilik ziren. Horrek erran nahi du kutsaturikoen %2,4 hil zirela.

Eta hauxe Nafarroako eragiketa: 19 kutsatu; 5 hildako (lerrook idazteko orduan). Hots, kutsatu diren %26 zendu dira. Baten bati irakurria diot Nafarroako osasun zerbitzua ereduak dela. Bada, alda dezatela eredu, portzentaia kontuetan desastre hutsa baita.

Cerverak bere gain hartu du eginiko guzieren erantzukizuna. Hau eta bertzea ez diren bertze bi egunkariak Osasun sailburuaren artikulua ekarri zuten asteartean. Murtzia eta Huelvako kasuekin alderatuta, Nafarroan legionella agerraldia ezin hobeki gobernatu dutela zioen artikulua funtsean. Eta kutsaturikoen %26 hil zaizkie.

Egia da, bai, 26 hori zenbaki hotz bat bertzerik ez da, eta aipatu beharra dago hildakoak, zaharrak izateaz landara, ez zeudela sobera osasuntsu. Baina nik badakit horiei, Gobernuakoei, anitz gustatzen zaiela errealitatea zenbakiekin juzgatzea. Halaxe egiten dute langabeziarekin. Portzentaia ttikiakin harrotzen dira, kontratuen prekaritatea kontuan izan gabe. Hortaz, zergatik xehetasunetan ibili? Jakin dezatela «egiaz»: kutsaturikoen %26 hil zaizkie.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Lizarra:** Ensemble CDJJJR taldearen kontzertua izanen da, gaur, 20:30ean, Frai Diego kultur etxe zaharberrian.
- **Iruñea:** Arcanda taldeak Media Luna tabernan joko du, gaur, 22:30ean.
- **Artazu:** Arrapo de Montek eta bere mariatxiek bihar joko dute, gaueko hamabi eta erdietik aurrera.
- **Barañain:** Nagao laukoteak kontzertua eskainiko du, asteazkenean, 22:00etan, lakuko anfitroian.

### ANTZERKIA

- **Zangoza:** Kataluniako Camaleo taldeak *Medusa* kale antzezlana eskainiko du, gaur, 22:00etan, arkupeetako plazan hasita.
- **Mutiloabeiti:** Camaleo taldea Mutiloa plazan izanen da, bihar, 22:00etan.

### ZINEMA

- **Barañain:** *Karramarro Uhartera* haurrentzako filma pantailaratu dute, gaur, euskaraz, 22:00etan, lakuko anfitroian.

### ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Ana Marin margolariaren *Nire txokotik oroitzapenak (1953-1997)* erakusketa Arizkunenea kultur etxean ikusten ahal da irailaren 2a arte, 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.
- **Izaba:** Peio Azketaren margolanak irailaren 2a arte izanen dira museo etnografikoan, asteartetik igandera, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara.

### IKASTAROAK

- **Iruñea:** Gazteriaren Etxeko irailako ikastaroetan izena emateko aukera dute oraindik 14 eta 30 urte bitartekoak: areto dan-

tzak, dantza latinoak, euskal dantzak, pintura, argazkilaritza eta ingurumena. Izen ematea eta informazioa, Gazteriaren Etxean (Zangoza, 30) edo 948-233512 telefonoan.

### LEHIAKETAK

- **Atarrabia:** Kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea hilarekin akituko da. Egileek bi lan aurkeztu ahal dituzte, argitaratu gabe. Gaia eta teknika libreak dira. Kartelak 70 cm-ko luzeran eta 50 cm-ko zabalera neurrian moldatu beharko

dira, eta bertan ondoko testua agertuko da: *Fiestas patronales de Villava. Del 6 al 14 de octubre de 2001. Atarrabiako herriko jaiak. 2001eko urriaren 6tik 14ra. 100.000 pezetako sari bakarra izanen da.*

- **Iruñea:** San Fermin Txikito iragartzeko kartel lehiaketarako nahi adina lan aurkeztu ahal dira irailaren 3a arte, Alde Zaharreko auzo elkartearen.
- **Tutera:** Nafarroa Oinez 2002ra-ko logotipo eta lelo proiektuak irailaren 3tik 7ra eman beharko dira, Argia ikastolan.
- **Iruñea:** Iruñeko Udalaren Egile

Berrientzako XVI. Literatur Lehiaketarako lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Lehiaketak lau sail ditu: olerkia, narrazio laburra, bertsopaperak eta komikia. Argibideak, 948-222008 telefonoan edo cultura@ayto-pamplona.es helbide elektronikoa.

### BESTELAKOAK

- **Erriberri:** Ardo-dastatze ikastaroa eginen dute gaur Nafarroako Ardo Kofradian (Kale Nagusia, 4), 20:00etan. Erreserbak, 948-210347 telefonoan.

● JOXE LACALLE



## Eskean

Lanik eta dirurik ez duenak eskean ibili behar du. Badakizue, tris-teago da lapurretan ibiltzea? Askok, eskua luzatu eta dirua eskatzeaz gain, musika eskaintzen dute trukean. Baina dirurik ez duenak ezin du jo dirua emanen dionari desatsegin zailon musikarik. Diru zorroan txanpon triste batzuk utziko dituenaren belarriak laztandu behar ditu musikari eskaleak. Eta zer egin dezake dirudunen musika jo nahi ez duen musikariak? Irudiko akordeoiaren jabea ondoko taberna batera joan zen hamarretakoa hartzera. Eta hantxe utzi zituen, Estafeta karrikan, akordeoia eta hura gortzeko kaxa. Bada, nahiz eta musikarik ez entzun, utziko ote zuten txanponik ondotik pasatu ziren moja eta emakumeak. Edo nahiago izan zuten soinean zeramaten Ges-cartera bezalako pagotzetan inbertitu?